

# 2024-2032 epealdirako euskara plan-markoa

## SARRERA

### ABIAPUNTUA eta DEFINIZIOA

Dokumentu honek jasotzen du Gorbeialdeko Kuadrillak 2024-2032 epealdian bere lurralde-eremuan euskararen egoera biziberritzeko egingo duten estrategia-multzoa.

Dokumentu honek bi funtzio ditu: batetik, **plan** bat da, Kuadrillaren euskara zerbitzuaren egitekoaren norabidea markatuko duena, eta, bestetik, **marko** bat da, Kuadrillaren barruan dauden gainerako erakundeentzat (udalak, administrazio batzarrak, bestelako eragileak) baliagarri izateko asmoa duena. Erakunde horientzat aukera bat izan nahi du, bakoitzak bere errealitatera eta ezaugarrietara egokitu dezan, eta bakoitzak bere xehetasunak bertan erantsi ditzan; beti ere, helburu eta estrategietan modu bateratuan jarduteko bidea erakusten dutelarik.

**Parte-hartze prozesu** baten emaitza da plan-marko hau: Gorbeialdeko Kuadrillako udalerrri guztietako ordezkari, euskaltzale eta eragileek hartu dute parte bere diseinuan. Era berean, eskualdean eraldaketa sozialean lanean ari diren gainerako zerbitzuekin ere kontrastatu da, zeharkako izaera bermatzeko.

### NAHI ESTRATEGIKOA

Gorbeialdeko Kuadrillaren 2024-2032 epealdirako euskara plan-markoaren nahi estrategikoa honakoa da:

**Gorbeialdeko hizkuntza-testuinguruan, euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzea eta handitzea, hiztun berriak sortuz eta erakarriz, gizarte ekitatibo eta justua eraikitzeke helburuz.**

### IRIZPIDEAK

Nahi estrategiko hori lortzeko, ondorengo irizpideen arabera jokatu du Gorbeialdeko euskara zerbitzuak:

- **Ardura banaketa eta lidergo efektiboa:** esparruaren, helburuaren eta strategiaren arabera, ardurak partekatuko ditu (Kuadrillako gainerako zerbitzuekin, euskalgintzako eragileekin...) eta horietako bakoitzaren lidergoa bilatuko du. Horrek jardueren kudeaketan izan beharko du isla, eta bakoitza bere izaerak eskatzen duen zeharkakotasunez gauzatuko da.
- **Osagarritasuna:** euskararen plan estrategikoa osagarria izango da gizarte ekitatibo eta justua eraikitzeke lanean ari diren bestelako estrategiekin eta planekin, eta arreta berezia jarriko du plana garatzerako orduan emakumeen eta gizonen parte-hartzea berdintasunez gauzatu dadin.
- **Estrategiak:** plan estrategiko honetan jasotako helburu bakoitza lortzeko estrategiarik egokiena zein den aztertuko du euskara zerbitzuak, eta estrategia horren araberrako jarduera jasoko du urteroko kudeaketa planean. Adibideak:

- **Aktibazioa/ohitura** aldaketa lortzeko kanpainak eta programak
- Ekitaldien antolaketa eta **produkzioa**
- Erabilerarako **aukerak hedatzea** eta espazioak sortzea
- Hitzunen **sentsibilizatorako** jarduerak eta programak
- Hizkuntza-irizpideak **estandarizatzeko** eta arautzeko ekimenak

## GLOSARIOA

### ARDATZAK:

Estrategiaren eremu nagusiak deskribatzen dituzte.

### ERRONKAK:

Lortu nahi diren lorpenak adierazten dituzte, eta epe ertainerako konpromiso-maila espezifiko bat adierazten dute.

### LAN-ILDOAK

Dimentsio tematikoak dira, eta erronkak gai zehatzen arabera antolatzen laguntzen dute.

### EKIMENAK

Jarduerak edo programak definitzeko balio duten eragiketa-multzoak dira.

### Adierazleak

Planaren jarraipena egiteko kontuan hartu eta neurtu beharreko ezaugarriak dira.

## 1. GOBERNANTZA/KUDEAKETA

### 1.1. EUSKARAREN NORMALIZAZIOA AGENDA POLITIKOAREN ERDIGUNERA ERAMAN.

#### 1.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean

EKIMENAK	Euskara biziberritzearen aldeko konpromisoa eta lidergoa indartu, erakunde publikoetan zein pribatuetan
	Gorbialdeko euskara zerbitzuen arteko harremana sendotu eta elkarlana sistematizatu
	Euskara zerbitzuen eta euskararen inguruko herri-mugimenduen arteko elkarlana landu
	Euskararen inguruko herri-mugimendua artikulatzeko eta eskualde-mailan koordinatzeko bideak jarri
	Zeharkakotasunez lan egin: <ul style="list-style-type: none"> <li>Eraldaketa soziala helburu dute beste esparruekin (feminismoa, ingurumena, kultura, gizarte-arloa...) lankidetzara bilatu</li> <li>Eskualde mailako garapena helburu duten erakunde eta planekin loturak bilatu eta koordinazioa bermatu (Landa Garapen Elkarte...)</li> </ul>
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara biziberritzearen aldeko lana behar bezala egin da Gorbialdeko Kuadrillan: lidergoa aktibatu da, euskara zerbitzuen arteko elkarlan sendoa dago, herri-mugimendua artikulatuta dago eta elkarlanean lanean ari gara, zeharkakotasunez lan egin da (<b>balorazio kualitatiboa</b>)</li> </ul>

#### 1.1.3. Komunikazioa landu eta sistematizatu, eskualdean euskararen aldeko lanaren kohesioa indartzeko

EKIMENAK	Euskararen inguruko programen eta jardueren komunikazio-bideak aztertu: euskararen orria, erakundeen zabalkunde-bideak...
	Egiten duguna "ikusgarri" egiteko eta herritar guztiengana iristeko bide berriak pentsatu, trantsizio digitala kontuan hartuta, eta baliabide fisikoak jasangarritasunaren ikuspegia txertatuz erabilia.
	Diskurtsoa landu, eta helburuen eta xede-taldearen arabera egokitu.
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gorbialdeko Kuadrillako euskararen komunikazio-protokoloa zehaztuta dago (<b>BAI/EZ</b>)</li> <li>Komunikazio-protokoloa baliozkoa da ezarritako helburuak betetzeko (<b>balorazio kualitatiboa</b>)</li> </ul>

## 2. JARRERAK / MOTIBAZIOAK

### 2.1. EUSKARAREN ALDEKO JARRERA AREAGOTU ETA HIZTUNEN AHALDUNTZEAN, HIZKUNTZA-OHITURETAN ETA -PORTAERETAN ERAGIN.

#### 2.1.1. Euskal-hiztunen komunitate ahaldundua lortzeko bidea egin.

EKIMENAK	Ahalduntze-ekimen erraldoiekin bat egin eta eskualde-mailako antolaketa bideratu (Korrika), zeharkako ikuspegia uneoro kontuan hartuta: emakume eta gizonen parte hartze ekitatiboa, ahalik eta ingurumen-inpakturik txikiena eragitea, tokiko sare sozioekonomikoarekin lankidetzan aritzea...
	Tokian tokiko euskararen bilguneak antolatu, eta zein helburu duten behar bezala hausnartu eta komunikatu. Parte-hartzaile berriak bertara erakarri (Zuia Euskaraz, Zigoitia Euskaraz, Euskararen egunak), zeharkako ikuspegia uneoro kontuan hartuta: emakume eta gizonen parte hartze ekitatiboa, ahalik eta ingurumen-inpakturik txikiena eragitea, tokiko sare sozioekonomikoarekin lankidetzan aritzea ...
	Ekimenetan lortutako indar-pilaketa eta ahalduntzea denboran zehar iraunarazteko mekanismoak martxan jarri.
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gorbeialdeko Kuadrillak ekimenekin bat egin du eta bilguneak antolatu ditu, ohiko maiztasunarekin <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>Antolatutakoak eraginkorrak izan dira euskal-hiztunen komunitate ahaldundua lortzera bidean, eta ahalduntze hori denboran iraunaraztea lortu da <b>(Balorazio kualitatiboa)</b></li> </ul>

#### 2.1.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta zabaldu.

EKIMENAK	Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu eremu guztietan: EUSKARALDIA.
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskaraldia antolatu da Gorbeialdean, ezarritako maiztasunarekin <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>Antolatutakoak eraginkorrak izan dira gizartea aktibatzeke <b>(Balorazio kualitatiboa)</b></li> </ul>

### 2.2. EUSKARARI ETA EUSKAL KOMUNITATEARI BURUZKO PERTZEPZIO POSITIBOA ETA IKUSGARRITASUNA HANDITU.

#### 2.2.1. Euskararen erakargarritasuna landu.

EKIMENAK	Bereziki gazteen kasuan, euskaraz bizi diren erreferente ezagunak gonbidatu, eta erreferente lokal berriak sortu, eredugarritasunaren bidean. Eredugarritasuna zeharkako ikuspegia kontuan hartuta landu, genero estereotipo eta rolak apurtzeko bidean.
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekitaldiak antolatu dira erreferente ezagunekin eta erreferente lokalekin <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>Antolatutakoak eraginkorrak izan dira euskararen erakargarritasuna lantzeko <b>(Balorazio kualitatiboa)</b></li> </ul>

#### 2.2.2. Euskarara hurbildu ez diren eta euskara urrun sentitzen duten herritarrak euskarara erakarri.

EKIMENAK	Euskara urrun sentitzen duten gizarteko sektoreak (adinekoak, elkartean parte hartzerik ez dutenak...) lan egiteko guneak eta aukerak sortu.
----------	--

	Etorriberriei hizkuntza-harrera egokia egiteko baliabideak jarri, eta euskara ezagutzeko/erabiltzeko ekimenetara bideratu.
<b>Adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Programa bat antolatu da euskara urrun sentitzen duten gizarteko sektoreekin aukerak sortzeko <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>• Etorriberrien harrera-programetan hizkuntza-irizpideak txertatu dira <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>• Antolatutakoak eraginkorrak izan dira urrun sentitzen direnak euskarara erakartzeko <b>(Balorazio kualitatiboa)</b></li> </ul>

### 2.2.3. Euskararen, euskal kulturaren eta egindako indarberritze-prozesuaren berri zabaldu

<b>EKIMENAK</b>	Gorbeialdeko eskualdeko turismo-estrategietan eta mezuetan euskararen eta euskal komunitatearen ikusgarritasuna handitzeko bideak txertatu
<b>Adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gorbeialdeko turismo-estrategietan ikusgarritasuna handitzeko bideak txertatu dira <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>• Egindakoa eraginkorra izan da euskararen erakargarritasuna handitzeko <b>(Balorazio kualitatiboa)</b></li> </ul>

## 3. EZAGUTZA / GAITASUNA

### 3.1. EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN TRANSMISIOAN ERAGIN

#### 3.1.1. Euskara eta euskal kulturari buruzko ezagutza gizartean orokortzeko bideak jarri

<b>EKIMENAK</b>	Euskal kultur adierazpideen (bertsolaritza...) transmisioaren bidez euskara ahozkotasanaren eta sormenaren bidez lantzeko estrategiak garatu
	Eskola komunitatearekin eta hezkuntzan lanean ari diren bestelako eragileekin (proiektu komunitarioak...) elkarlanean euskara eta euskal kulturari buruzko ezagutza herri mailan hedatzeko bideak jarri
	Euskarazko sormena bultzatzeko programak martxan jarri
<b>Adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Goiko lau ekimenetarako (kultur adierazpideen transmisioa, euskal kulturari buruzko ezagutza, euskararen sormena) programak gauzatu dira <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>• Programa horiek eraginkorrak izan dira euskara eta euskal kulturari buruzko ezagutza orokortzeko <b>(Balorazio kualitatiboa)</b></li> </ul>

#### 3.1.2. Familia-transmisioa bermatzeko eta sistematizatzeko bideak jarri

<b>EKIMENAK</b>	Euskararen transmisiorako bideen eskaintza, Gorbeialdeko familien tipologiak kontuan hartuta, orokortu, egokitu eta sistematizatu
	Transmisioa bideratuko duten jarduera eta programa espezifikoak antolatu, familien tipologiak eta hartzaileen ezaugarriak kontuan hartuta
<b>Adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen transmisioa sistematizatzeko egitura eta programazioa martxan dago <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>• Egindakoa eraginkorra da euskararen familia-transmisioa bermatzeko <b>(Balorazio kualitatiboa)</b></li> </ul>

## 3.2. EUSKARA IRAKATSI ETA IKASTEKO AUKERAK INDARTU ETA BERRIAK SORTU

### 3.2.1. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu

<b>EKIMENAK</b>	Gorbeialdeko AEKrekin batera, euskara ikasteko eskualdera egokitutako eskaintza askotarikoa eta irekia egin
	Gorbeialdeko erakundeen euskara ikasteko dirulaguntza-sistema berrikusi, doakotasunera bidean
<b>Adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara ikasteko eskualdera egokitutako eskaintza egiten da urtero <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>Euskara ikasteko dirulaguntza-sistamarako irizpide bateratuak ezarri dira Gorbeialdean <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>Egindakoa eraginkorra da euskara ikasteko aukera berriak sortzeko eta baldintzak errazteko <b>(Balorazio kualitatiboa)</b></li> </ul>

## 4. ERABILERA / ELKARRERAGINA

### 4.1. EUSKARA EGUNEROKO BIZITZAN EROSO ERABILTZEKO BERARIAZKO ESTRATEGIAK GARATU.

#### 4.1.1. Euskararen babesguneak: aisialdia eta kirola

<b>EKIMENAK</b>	Ume eta gazteen euskarazko aisialdi eta kirol eskaintza orokorrean erabilera bermatu eta orokortu, Jaurlearitzaren diagnostikorako tresna erabilia
	Helduen aisialdi eta kirol eskaintzan hizkuntza-irizpideak jartzeko modua sistematizatu eta euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartu
	Aisialdi eta kirol jardueren begirale, arduradun eta entrenatzaileek formazio soziolinguistikoa (erabilerari begira) jaso dezaten bideak jarri
<b>Adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aisialdi eta kirol eskaintzan (adinaren arabera) hizkuntza irizpideak sistematizatuta daude eta jarraipena egiten da <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>Begirale, arduradun eta entrenatzaileentzako formazioa eskaini da <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>Egindakoa eraginkorra da aisialdiaren eta kirolaren eremuak euskararen babesgunez hartzeko <b>(Balorazio kualitatiboa)</b></li> </ul>

#### 4.1.2. Euskararen babesguneak: kulturgintza

<b>EKIMENAK</b>	Kultur-emanaldien agenda orokorrean hizkuntza-irizpideak berrikusi
	Euskarazko kultur-zirkuituetako emanaldiak antolatu, eta euskal kulturgile ezagunei eskualdean presentzia eman, kultura-zerbitzuekin elkarlanean
	Tokiko euskarazko kultur-sortzaileei eskualdean presentzia eman, kultura-zerbitzuekin elkarlanean
<b>Adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskarazko kultur-emanaldiak antolatu dira, ardurak banatuta, eta tokiko kultur-sortzaileei presentzia eman zaie emanaldi horien artean <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>Egindakoa eraginkorra da kulturgintzaren eremua euskararen babesgunez hartzeko <b>(Balorazio kualitatiboa)</b></li> </ul>

#### 4.1.3. Euskararen babesguneak: erabilerako programa espezifikoak

<b>EKIMENAK</b>	Erabilera helburu duten programak (Mintzalaguna...) landu eta unean uneko errealitatera egokitu, eraginkorrak izan daitezen
	Erabilera-programa espezifikoak antolatu, xede-talde espezifikoen arabera
<b>Adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabilera helburu duten programak antolatu dira, unean uneko errealitatera egokituta <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>• Egindakoa eraginkorra da xede-talde zehatzetan euskararen erabilera handitzeko <b>(Balorazio kualitatiboa)</b></li> </ul>

#### 4.1.4. Erabilera-esparru berriak: esparru sozioekonomikoa

<b>EKIMENAK</b>	Gorbeialdeko esparru sozioekonomikoan euskararen erabilerarako estrategiak garatzeko plan integrala osatu, eskualdez gairikiko programen bidez (Euskaraz barra barra, Lanabes...), jendaurreko establezimenduei lehentasuna emanda.
	Goian aipatutako planaren barruan, eraldaketa soziala helburu duten beste zerbitzuekin elkarlanean sentsibilizazio-kanpainak egin, jendaurreko establezimenduetan.
<b>Adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Esparru sozioekonomikoan euskararen erabilerarako plan integrala osatu da, bestelako programekin elkarlanean <b>(BAI/EZ)</b></li> <li>• Egindakoa eraginkorra da esparru sozioekonomikoa erabilera-esparru berriztat hartzeko <b>(Balorazio kualitatiboa)</b></li> </ul>